

ZUBEROTAR IRRI KONTAKIZUNA: PERTSONAIAK, JARRERAK, EGOERAK

Eibar, 2002-XI-28

Txomin Peillen

Ezker eskuin entzunez eta batik bat Allande Elixagarai ligiarra, antolatu nuen bildumaz baliatuko naiz. Berriemaile hori ipuin kontalari ezteietara konbidatzen zuten. Moda zaharrekotan, kantuak, bertsoak eta ixtoriak ematen ziren ezteietan eta bakarrik azkenean musika. Orain haseratik beharriak hausteko txarangak jasan behar dira eta ixtoria horik gehienbat beste lekutan ematen: ihiztarien artean, muslarien artean, ostaturan, hots, gizonak topatzen diren lekutan esaten dira oraindik botoila on edo txar baten inguruan jendea eserita dagoenean; emakumeak ez dira atzerago egoten, hauk ere beren arteko kartakan eta txiste, zirto kontaketan trebeak dira. Hona hurbilketa gisa nola ikusiko dudana gaia, liburuan dagoena ez errepikatzeko: irribarrea sortzen duten pertsonaiak, jarrerak, egoerak, eta erantzun bitxiak ikusiz. Noski askok esango didate hau nire herrian kontatzen da edo Fernando Amezketarraren ipuina da, ezen ipuin herrikoi anitz hari egoizten zaizkiolako.

Ipuinak oso ederki bidaiatzen dira eta neronek lehengusu baten ahotik Pierre Larraine Bentaberrikozareren ahotik, Bocaccioaren ipuin baten zuberotar aldaera bildu nuen eta Allande Elixagarai zenak eman ipuinetan bizpahiru frantsesetik ikasiak dira. Allandek bere herrixkako ipuin kontaketaen egoera honela iruzkindu zidan «Ligin hogeita hamar urtez peko gazte haboroenek, laborari seme izanik ere, ez peitakie uskararik, beren ixtoriak frantsesez tük. Nik ere frantsesez badakitatzat bena eztütük bethi uskaraz ontsa ezarten ahal eta hik uskarazkoak nahi'tük.»

Zubereraren klasetxoa eman behar dizuet, euskalki hortan «sonrisa»ri *erri* esaten dugu eta «risa, carcajada» ri *erri handi*, *erri karkaza*, *karkaza*. Aipatuko dizkizuedan kontakizunetan kente anitzetakoak izango dira, humoretik, irkaitzeraino, ironiaren gaindi ibiliz.

Kontakizun batzuk, ipuinak izango dira; besteak zirtoak, txisteak, zubereraz dritxo izenez ezagutzen ditugunak. Hain zuzen Domenika Hardoieneren auzo zirtolariaz oroituko naiz, sarritan minbizitik hiltzen ari zela, karkaza egiteko ixtoria eta dritxo batzuen kontaketa eskatzen baitzidan.

Gizonek non ikasten zituzten ipuinak? Zaharrekin lehenik, baina soldautzan ere bai, eta batzuk irakurriak; andreak kantuak eta ipuinak serorekin ikasten zituzten, zeren garai luzeetan etxekandregaiak monjekin eskolatzen ziren. Oso gazteak ziren ikasleak eta nesken isilarazteko kantuak, txisteak eta ipuinak erabiltzen zituzten eta serorek batzuetan nonbait irakurriak eta denak ez ziren moral hitsekoak. Noski kanpotikako ipuinei euskararen eta baserri kutsuaren gatza sartzen zieten, gero zirtoak inprobisatzen ziren eta ez zen kantopotar iturrien beharrik: Santa Graziko auzoekin ia beti zirto egiten gabiltza gero ahaztu, edo idatzi gabe uzten.

Nire ixtorien iturriak laburzki emango ditut. Hona nor diren ipuin kontalariak. Liburuekin hasiz A.E. Allande Elixagarai, iturri nasaiena izan zait eta elkarrekin egin genuen *Allande Elixagarai ligiarraren ixtoriak* (A.E.) liburu bilduma, bildutako ixtoria batzuk jadanik R.M. Azkueren *Euskal Erriaren Yarkintza* (R.M.A.) liburuan irakur daitezke. Gero Jean Michel Bedaxagar(J.M.B.), Pierra Bentaberrikoa (P.B.), Joanes Dordorrage (J.D.), Mainer Elixagarai (M.E.), Domenika Hardoi (D.H.), Maite Berrogain Ithurbide (M.B.I.), Pierra Oihanart (P.O.), Joanes Peillen (J.P), baita Ziberoako Botzak argitaratu kasetak.

ERANTZUN BITXIAK

Dotrinako pasarteak

1. Oroimen motzeko haurra

Ume bat, oso urduri, katiximara zoan errepikatuz «zer da heriotza,? zer da ezkontza? «Zer da ezkontza? Zer da heriotza,» «eta abadeak galdetu zionean zer zen ezkontza «jauna arima korpützetik bereztia» (A.E.)

2. Urteko eliza jaiak

Ipuin hau beharbada Euskal Herrian zabaldueña da. Beste ume bati apaiak galdetu zion:

«zoin dira Elizaren urteko lau besta handiak?»

Erantzuna: «Jauna, Bazko, Pintakoste, Andre dena Maria eta..eta..»

Eta laugarrena? «Jauna, etxen zerriaren ehaitea». (A.E. eta J.D.)

Haurren ausartziak

1. Hika apaizari

Santa Grazin bazen familia bat denek hika hitz egiten zutena eta haur zaharrena katiximara agertu zen abadeari hika eginaz. Apaizak gurasoak deitu. Abadeari ez zaiola hika hitz egiten. Zuka hitzegin behar zaiola apaizari eta ume-ari irakats ziezaiotela. Eta egun batez zuka hasi zen abadeari eta hark galdetu

«Ederki ikasi düzü züka egiten» «Bai jauna, aitak erran *ditadak hirekin* züka ari behar düdala eta hartakoz *hiri* züka mintzatüko *nitzaik*». (A.E.)

2. Kaka jaun erretora

Dotrinara beti berandu zetorren neskari esan zion abadeak— eta hau benetakoa da—: «Haurra, ontsa askaltürük horra zira arraultz eta xerri trantxa janik».

Eta hark erantzun:

«Kaka, jauna! arto ta gerezi». (A.E.)

3. Haurrak gaizki ulertua

Apaizak erran zuen mezan: «Eliza gure ama da». Eta behin giltzainaren semea, Elizako atea zabalik ikusiz, oihuka apaizaren ikustera joan zen

«Jauna! jauna, aita bortüala joan düzü, ‘ama’ eztizü giltzatü, ‘zabal-zabalik’ zure haidürü düzü». (A.E.)

4. Haur metaforazalea

Behin ume hari etxeko berriak galdetu zizkieten.

Zertan ari zen aita eta hark ontsa zirenak gaizki jarten (erran nahi zuen beren belardian sartu auzoko behiak kentzen).

Eta aitona zertan jarduten. Hark borda giblean ehizen, hatzamanak oro uzten eta besteak bizkarrean ekartzen (erran nahi zuen arkakusoen ehizan ari zela).

Eta arreba? «Erriz egin züana, nigarrez desegiten (atseginetan egin zuen haurra egun hartan sortzen). (A.E.)

5. Zeinek handiago

Gurasoek ume bati esan zioten, elizan, besteek bezala egin behar zuela, belaunikatu, zutitu eta denak. Urrundik zetorren eta haurrari biderako talo bat eman zitzaion. Sagara denboran apaizak bi eskuekin ostia hartu zuenean,

umeak boltsatik taloa atera eta altxatu zuen esanaz: «nik zurea beno handiagoa dizit taloa eta eskü bataz eraikitzeke kapable nüzü». (A.E.)

Jendeen hizkuntzazko hutsak

Diglosiaren inguruko ipuinak ugari dira lehenago euskaraz gaizki hitzegiten zutenaz trufatzen zen, orain, gehienetan, frantsesez gaizki egiten dutenez eta gaizki ulertzen dutenez barre egiteko. Frantsesez, ordea, ezjakintasuna eta erabilera gaizki dabilta. Irratietan eta telebistetan erdaldunek zernahi txistegai ematen dute.. Baiona *Pyrénées Orientales*tan ipintzen dutenean edota esaten Euskadiko hauteskundeetan Henri Batasuna (sic) ez dela hautatua izan. Muga gaitezen euskal alorrari.

1. Egur batekin izorra

Behin Altxürüküko neska bat joan omen zen ezkontzatik kanpo eduki haurren erregistratzera. Orduko herri idazkaria, trufakaria zen eta neskak –garai hartan nesken artean moda sartu zelako– frantsesa zekiala erakutsi nahi izan zion:

Bonjour Bernard
Ba zuri ere eta zer düzü?
On a eu l'enfant (haurra eduki dugu)
Nor dü ama?
Moi, certes moi Mañaña (Ni prefosta, ni Mañaña)
Aita nor dü?

Eta frantsesez aita eta senar berdin zelakoan neskak erantzun:

Fait sans père (Aitarik gabe egina).

Eta Herriko idazkariak ihardoki:

Egür arrail batekin egin düzü.

Apaizen ustegabeko hitz akatsak

1. Apaiz gorrarena

Santa Graziko apaizak Elizabestako mezan santaren errelikia mun egitera, pot egitera, aurkezten zuen eta bakoitzak zerbait opari ematen. Andere txiro batek opil txikia ekarri zuen eta lotsaz puzker egin. Abade gorrak esan zuen goratik:

«Aurten txipi egin badü daigün urthean handiago eginen deizüe».

Puzkerra zela eta eliza irribarrez lehertu zen. (A.E. eta R.M.A.)

2. *Idortea ez da idorreria*

Behin idortea zela eta Ligin gomutatu zitzaaien ez zutela Uzten benedikatzeko prozesioa egin eta eguna joana bazen ere apaizak onartu zuen egitea euria itzul zedin. Apaiz berria zen eta zubereraren ñabardurak ahaztu zitzaizkion, *idortea* bada legortea *idorreria* hestetako gogordura da, eta zeruari prozesioaren erdian eskatu zionean Jainkoari:

«herria idorreriaz libra ezazü».

Jende guztiek ihes egin zuten eta sasi oihanetan galdu, zirrinak jota hesteen askatzera. (A.E. eta R.M.A.)

3. *Gizon eta emakumeak nahasian*

Beste behin apaiz bat kezkatua zegoen gizona zegoen goian erabiltzen zizuten galeriak ustelduak zirela eta erortzeko punduan. Igande batez sermoian esan zuen «galeria horik berritu beharrak dütügi bestelan laster gizonak emazteen gainean nahasian eroriko zirade». Sekulako irribarre algarak iraun omen zuen edo zubereraz esateko «karkazaz irailirik egon ziren». (J.D.)

4. *Preposizioen etsaia*

Y. herrian bazen gizon bat frantsesa euskaratu zuena eta behin honela per-pausak atera zizkion, erdaldun batek nora zoan galdetu zionean.

Moi je suis le chocolat le type. Ni naiz txokolate morroina.

Notre femme (s'est) levée (ce) matin et moi (je dois) aller cabane.

Gure emaztea(sic) goizik jeiki eta ni artzainolara. (A.E. eta J.D.)

«Gure emaztea» zioenean ez zen okerrean gizona, zeren emazte kolektibo horrek izan zituen herriko azken zintzarrotsak.

5. *Zu zara alua, andre maitea*

Ligi Eskapilako hotolean Batista morroinak andre handi baten maleta logela okerrean sartu zuen, eta andreak esan frantsesez:

–Baptiste vous êtes un imbécile (Batista tontoa zara)

–Non c'est vous le con, chère Madame (Ez, andre maitea, zu zara alua) (J.D.)

APAIZEN JOKABIDEAK

Jendeek bazekiten abade gehienek ongi jaten zutela, batik bat Adorazio-ne izeneko beren bilkuretan, eta janari eta edari hoberenak on zitzaizkiela. Gainera jendeek diote jatean apaizen gisa egin behar dela isilik egon, ongi ires-teko. Abade mahai horien inguruan ixtoriak daude nola apaizak, apaiz ez zirenen bizkar barre egin nahi zuten.

1. *Zurgina eta haren semea*

Behin apaizetxean zurgin batek eta semeak lan egin zuten. Eta abadeak aita baizik ez zuen gonbidatu bazkaltzera. Bazkari hasieran zurgina goratik hasi zen otoitzean «Aitaren eta izpiritu santuaren izenean halabiz. Aitaren eta izpiritu santuaren izenean halabiz!» Abadeak esan zion «semea» ahaztu zaizu. A! semea atearen ondoan zain zegoela ihardetsi eta apaizak bazkaltzera deitu zuen, semea.(A.E.)

2. *Txerriak titi eskas*

Beste behin horrelako dritxolari, koblakari bat deitu zuten adorazio-neko bazkari alaitu zezan baina ez zioten jatera ematen. Orduan lehen ixtoria hau esan zuen» «Behin Zerri ama batek hamabi hüme izanik, hameka titi baizik ez zizün».

Eta abadeak galdetu Eta nola egin zuen? Orain nik bezala: «besteek ja-ten züen artean so egon». Eta mahaira gonbidatu zuten zirtolaria. (A.E.)

3. *Hiru amuarrainak*

Behin apaizak gizon zirtolari ezaguna bazkaltzera konbidatu zuen. Hura lehenik sukaldetik igaro zen eta hiru amuarrain ikusi, txikia, ertaina eta handia. Bazkari garaian amuarrain txikia ekarri ziotenean, hurbildik arrainari hizketan hasi zitzaion ahapetik. «Ameriketan dudan ene familiaren berri badakizia? Eta apaizak, «zer dio arrainak?» Bera ez dela oraindikan itsasoan ibili baina beharbada sukaldean handiago bat egongo dela Atlantikoan ibilia.

Ekarri ziotenean amuarrain ertaina, berdin «Ameriketan dudan familiaren berri badakizia? eta zirtolariak Jauna itsasoan ibili düzü bena ez hain ürrün, sükaltean badizü lagüna Ameriketara heltü dena.

Ekarri zioten arrain handia eta zirtolariak arrainari galdetu Ameriketan egon zenez. Bai eta hango familiaren berri onekin zetorrela. Hori erran eta gogo onez jan zuen arrain handia zirtolariak. (A.E.)

4. *Apaiza eta auzapez jauna*

Abadeek behin alkatea, jaun mera, adorazioneko bazkarira gonbidatu zuten eta zeukaten eskolaren bidez hartaz trufatzea pentsatu. Oilaskoa etorri zenean latinez zatia eskatu behar zela erabaki zuten. Eta frantses latinizatuan batek esan zuen «ailus» eta hegala hartu, bigarrenak «cuissus» eta izter bat hartu, orduan merak, «corpus» esanaz, gelditzen zen oilasko osoa hartu. (A.E.)

5. *Bera mintzo*

Abade guztiak ez dira hain zekenak. Batek, baitzekien ezagutzen zuen bertsolaria edo diogun koblakaria ardozale fina zela, bazkaltzera deitu zuen.

Lehen ardo bat hartu zuten. Bertsolariak klikez edan zuen eta «zer diozü hortaz», apaizak. «Ardu ejerra düzü».

Bigarren ardoa bazkari erditan eman eta «zer diozü?» «Hun düzü» (Ona da).

Hirurgarren ardo hoberena azkenik eman eta koblakaria isilik, lasaiki edaten. Eta hontaz eztüzü deus ere erraiten? «Ez hau bera mintzo da, jauna». (A.E. eta R.M. Azkue).

IXTORIA SANTUAK SECUNDUM ZUBEROA

Lehen Jupiter edo Maria Mundukori egoizten zitzaizkien menturak kristautau ziren Euskal Herrian eta Kristori eman. Hona batzuk:

1. *Espainian ez da bakerik izanen sekulan*

Euri egun batez eta ibai bat urez handitua zelarik Kristo ertzean egon zen ezin ura igaro, ez ibirik, ez zubirik. Han zegoen espainol batek esan zion:

«Bizkarrean har-eta eroanen zütüt huraren beste gaintiala».

Hala erran hala egin eta haraintian Kristo lurrean pausatu züanean, Jau-nak erran zion:

«Eskerrik hanitx eta sari bezala egizü bi boto eta agitüko dütützü».

«Jauna Espainarentako nahi nikezü ogi huna, ardo huna eta bakea».

Eta Kristok erantzun bi boto erran ziola eta geroztik Espainian bada ardo onik, ogi onik, baina hirugarrena bakea Espainiak ez du ezagutzen. (Allande Elixagaraik, (AEk) kontakua baina liburuan agertu ez zena).

2. *Bearnesen jatorria*

Bide aspergarrian zebiltzan lurrean Kristo eta Jaun Done Petiri. Bat batean oinaz harri bat jo zuen Petirik eta esan:

«Ala Jinkoa! Jinkoa!» Kristok: «Otoi! ez holakorik ene aitzinean!».

«Bena jauna harri hori ezdeus düzü, eztüzü deusetarako hun!» «Ago harri horrekin eüskalduna eginen diat».

Bidean joan ahala, bidea ez zen hobetzen eta hona non Petirik oina behi korotzean sartzen duen:

«Kaka! Jauna hau ere eztüzü deusetarako hun» Kristok: «Ago! ago! hunekin bearnesa eginen diagü!»

3. *Nola Jaun Done Petirik ez zuen zaldirik izan*

Bidaje lüze bat eginik Jaun Done Petiri, Kristoren Santxo Pantza bezala, zamari ametsetan zebilen eta galdetu zion Kristori nahiago zukeela zaldi bat balu haren gainean ibiltzeko eta Kristok nahi izanez geroz agerraraziko ziola, baina horretarako pentsamendua bestetara sakabanatu gabe Aita gurea osorik erran behar zuela:

«Aita gurea zelüan zirena.... egin bedi zure nahia».

«Jauna, zaldiak zaldi alkirik izanen ote du?».

APAIZEN GELARIAK

Ipuin askotan apaizen gelaria neutroa da. Beste batzuetan ohe laguna ere.

1. *Gelaria apaizaren interesak zaintzen*

Santa Grazi Ibarbürüko nausi zaharra emazteak manaturik apaizari bi oïlaskoren ematera joan zen. Emaitza hura abadeari zuzenean utzi behar ziola eta, apaiza idazten ari, gelariak jarriarazi zuen eta «denboraren inganatzeko» ogi eta gazta jatera eman. Ibarbürüri gazta zati bat edo ogi zati bat gelditzen baizitzaion, bukatzeko bestetik zerra berri bat hartzen zuen eta gelaria arren-guraturik gazta guztia jango ziola, erretorari kontatu zion; hark Pierraniri esan zezaiola, gazta hark totelarazten, motelarazten zuela «A ordüan gazna hunek motelarazten badu, ondarra etxekandreari eramaneko diot» eta etxera joan zen gaztaren beste erdiarekin.

(A.E eta D.H.).

2. *Gelariak gaizki ulertua. Asukre matxardak komunean*

Adorazionetan apaizak bazkaltzen ziren elkarrekin. Higienez ideia zorrotza zeukalako, Santa Graziko erretorak gelariari erran zion: «Bazkari denboran ene lagünak üsü komitatetan ibiltzen dütützü kakegitera, gero kafearen püntüan sükre mokorra eskü zikinekin hartzen. Hebertik aitzina hortakoz sükre espintzetak erosi behar dütützü». Urrengo adorazionean galdetu zion «Sükre matxardak erosi eta nun ezari dütüzü?» «Prefosta komitatetan, jauna». (A.E.)

3. *Izen batzuen arriskuak edo hiru txerrikume galduak*

Abadeak eta gelariak erabaki zuten beren hiru txerri txikiei beren itxuren arauera izen bana ematea. Bata «bilo kizkur», bestea «buztan zuta» eta hirugarrena «ipurdigorri». Behin txerriak tegitik ezkapatu ziren. Apaiza eta gelaria bakoitza bere aldetik bila joan. Une baten buruan, gelariak apaizari oihu egin zion: «Jaun erretora! jaun erretora! bilo kizkurra badit, ipurdigoria ere bai, büztan züta baldin badüzü ziauri etxera!». (A.E.)

Apaizak eta zazpigarren mandamentua

1. *Apaiza arrantzale*

Badira noski neskekin ibiltzen ziren apaizei buruz irri kantuak eginik zubereraz. Nik dakidanez azkena duela berrogei urte. Halere badugu Zuberoan asmatu ez den pertsonaia, ezaguna eta gutarik batzuk ezagutzen duguna: diskoteketan dantzan ibiltzen zena eta sotanadun aita familiako dena. Hartaz txisteak zirtoak egiten dira, baina berak asmatuak, baliman, hoberenak.

Hasieran apaiz hori itsasaldean zegoen eta neskatila bie bane ume egin zien. Zuberoara erbesteraturik, erretor, arrantzale eta neskazale jarraitu zuen eta Allandek herri hartan ikasi zuen «Badakizia zertako ibiltzen den arrantzun erretora?» Hark ez zekiala. eta besteak erantzun. «Emazte ta haurren hazteko». (A.E. eta P.O.)

2. *Etxe haren ondoan arrainak haginka ongi egiten du*

Herriko alkate ohiak kontatua, erretorak berak egin zirtoa.

Behin erbeste herri hartako auzapezak galdetu zion apaiz berari zergatik holako parajea (andre ezkondu ohaidea zuen lekuan) beti ibiltzen zen eta «han usikitzen dizü arrainak» erantzun zion. (P.O.)

3. *Bekatu egile handiena*

Behin urteberriko sorgin afarian gertatu nintzen eta delako erretorari hau entzun nion, A. ko etxejoaunak galdetu zionean zergatik apaiztu zen eta apaiz jarraitzen, erantzuna eman zuen. «Zien artean bekatüegile handiena beiniz, Jinkoarenganik ahal bezain hüllan izateko». Orain, adinarekin, abade horrek zahartasun eta eritasun anderekin ditu harremanak. (Tx. P.)

4. *Behi zahar baten adina*

Herri hortara, desertura igorri apaizek neskazale fama hori badute eta aspaldiko bi ipuin kontatzen dira. Batean apezpikua kezkatua zegoen, ziotelako herri horretako erretorak gelari gaztea zeukala eta idatzi zion. Hark erantzun «Behi zahar baten adina dizü ene gelariak». (A.E. eta J.D.)

5. *Apezpikuari ipurdian zaflakoa*

Halere bere begiz ikusi nahi zuen mendian galdu herria. Bisita eguna luzea izan zen eta garai harretako itzul bidea mandobidea zen eta bide bazterrean amildegiak ikusi zituen. Erabaki zuen herrian gaua igaraitea eta esan erretorari. Hark: «Ohe bat baizik ez dizit, Jauna». Apezpikuak: «Berdin zait, elkarrekin lo eginen dugu».

Biharamun goizean ipurdian sekulako zaflakoa hartuz iratzarri zen Monñora apaizak oihuz ziolarik: «Jaiki adi, Maria, ingoiti hor diñagü esnekaria». (A.E. Domenika Agergaraiek, okinarekin kontatzen du).

6. *Beretterarena, monagilloarena*

Apaiz bat konturatu zen giltzainak hil zioten txerria ebatsi ziola eta giltzainaren semeak lapurketa hori abesten zuela. Eta beretter zen giltzainaren semea deitu zuen. Bi sos eman zizkion meza garaian koplak hau kanta zezan:

Ave Mari Stella
apezaren zerria
atque semper virgo
gure gazitegian da.

Etxera joan da. Aitak galdetu zion nola eta zertarako lortu zituen bi sokak, eta aitak beste zerbait kanta zezan bost sos eman zizkion eta Elizan semeak kantatu:

Ave Mari Stella
aita bortian deno
atque semper virgo
aphez amareki lo. (A.E. P.B.)

7. *Apaizak ama erosi nahi*

Haur batek behin ikusi zuen gizona etxeko behitegian behi bati herrapea hukiitzen, bizkarra laztantzen, lepoa ferekatzen, ahoa zabaltzen. Aitari galdetu zion zergatik egiten zuen gizon hark. Aitak ihardetsi behia erosi nahi zuela. Biharamunean alorrean zegoen aitarengana, lasterka, heldu zen mutikoa eta hats batean erran:

«Aita! apaiza ari düzü amari atzo behiari gizonak egiten ziona egiten? Nik ez dit nahi apaizak ama eros dezan!».

8. *Apaizak ezkondu nahi*

Hiru apaiz ari ziren ea noiz ezkontzeko baimena edukiko zuten eta batek esan zuen «gük eztizügü ikusiko, bena gure haurrek bai». (Z.B. Urban Agut-borda)

JENDE XEHEEN SEXUALITATEA

Euskal Herrian gaur pornografia gogorra serioa eta hitsa modan delarik ikus dezagun herriak nola ikusten duen bere buruaren sexualitatea.

1. *Umea ala kaka mordo?*

Mutiko txiki bat haurrak nondik sortzen ziren jakin nahiz, amari galdetu zion. Hark gonak altxatu eta zuloak erakutsi. Orduan umeak: «apürbat gibel-xeago kaka tantoa izaten ahal nündüzün. (A.E.)

2. *Ez elizan otoi*

Santa Grazin ezkongai batek ezkontegunean hotz handia zelako bigarren galtzak, bonbatxo prakak, gainetik jantzi zituen. Elizan apaizak eraztunak eskatu zizkionean, eraztunen hartzeko bigarren prakak jaisten hasi zen gizona eta bere andregaiak esan «Felipe, badakit pantaluak jaisten düütüzüñean zer nahi düzün, bena otoi ez elizan».

3. *Tediate, mediate*

Ezkon-eta biharamunean emazte berriak haurra sortu zuen eta senarra be-rea ez zelakoan apaizaren ikustera joan eta hark esplikatu abenduko gau batek bederatziti hilabete iraun dezakeela, eta hona nola:

Tediotte mediotte
hola diote
gure libürü zaharrek:

Abentüan gaüia luze, gaüierdi arte lau hilabete, hantik aitzina bost, Ezkontüa hizanez geroz, haurra hirea izaten ahal dük» (A.E.)

4. *Esne beltza ala beltzaren esnea*

Behin ofizioz bidaiatzen zen bat etxera itzuli zenean, emazteak aitortu zion haur beltza bazutela. Berak berea zela ez onartu. Andreak esaten berak ez zuelako esnerik, haurra andre beltz bati edoskitzera, esnatzera eman ziola eta hortik haurra beltzatu. Gizonak amari hori kontatu eta hark: «Behar ere ezteiat behi eznerik egoskarazi bestelan adardün eginen hintzan». (A.E.)

5. *Bekatu lekua garbitzen*

Neska batek, ahizpa kofesatu berria *eskua* ur benedikatuan bainatzen ikusi zuen. Eta zergatik? Apaizari aitortu ziolako mutil batek *eskua* huki ziola. Orduan, beste ahizpak ez zuela kofesatu beharrik erran eta, gonak altxa eta *ipurdia* ur benedikatuan bainatu zuen. (A.E.)

6. *Hobe huke txapela erosi bahu*

Behin turista batek euskaldun abarketak erosi zituen eta miretsirik beti errepikatzen «Espartina zer gauza ederra! zer gauza ederra!» Egun osoa espartinen gorai patzen eta ederresten. Gauean andrea ohean sartu eta bera zutik, bilusik ezin abarketak kenduz esaten dio andreari: «Espartinen ederra! Eztüna so egiten? Ene pitoak ere, behera so, miresten ditin abarketa».

Andreak erantzun: «Hobe hükean boneta erosi bahü» (D.H.)

7. *Txakurren moduan egin*

Bazen mutil zozo bat, sexu gauzetan ere, oso ezjakina Ezkondu zen eta gauetik gauera ez zion andre ezkonberriari ezer egiten: musu bat eta zurrunga lo baizik. Andre berriak amari egoera aitortu zion eta hark erran, kilika lezan irritsa piztuko ziola. Kilikatzen hasi zitzaion emaztea eta senar gazteak irribarre algarrak egiten zizkion eta lokartzen.

Etsiturik neska berriz amarengana. Amak esan zion aski ziola erraitea, andrekin txakurrek egiten duten bezala, egin behar dela. Amak errana gau berean esan zion senarrari. Mutila zutitu zen eta ohe zurraren oinean zangoa altxa eta pisegin. (A.E.)

8. *Oilo ibildaria, azeriak ez du beti jaten*

Bi ezkongai baziren. Mutilak senargaiak izugarrizko harrokeriaz esan zion sekulako atsegina emango ziola eta emaztegaiak erantzun:

«Badakiat bai, nola datekean herriko beste motiko güziek egin deitaden gisa eginen daitak» (A.E.)

9. *Ez lauak batean*

Behin paristarsa bat belardi batean lokartu zen eta esnatzean ezagutzen ez zuen zerbait bazuen buru gainean: behi baten herrapea eta, erdi lotan, lau titiak ikusiz esan zuen:

«Bai, gizonak, bai, lauak hartüko zütiet bena ez denak batetan». (A.E.)

10. *Aizearen ala euriaren aldetik*

Epaitegian andre batek, alegia, gizon batek ukitu ziola ipurdia. Eta epai-leak metaforaz xotilki galdetu zion:

«Ebiaren aldeti, ala aizearen aldeti hunki zütü?» (A.E.)

11. *Behiak jendeak bezala*

Behin hiru hiritarsek topatu zuten nekazari kezkatua, behia sokatik zaramala. Eta zer duzu. Behia zezenarengana eroan behar dut. Denbora galtzen ari naiz. Zaude guk eroango dugu. Eta paristarsak behiarekin badoatz. Itzuleran neskak lohiz, gorotzez zikinduak eta behia berdin. Nekazariak galdetu. Zezenak eraso zaituzte. Ez, jauna, ez dugu lortu behiak zezenarekin bere zera egin zezan, bizkarraren gainean ipintzea » (A.E.)

12. *Buruko mina*

Serioa zela, zintzoa zela eta senargaiari ez zion ezkondu baino lehen gorputza eman nahi andregai batek. Eta behin eskaeraz asperturik hamargarren aldiko, serioa zela erran ondoren, gaineratu zuen «besteekin egin düdan ba-koitxean sekulako bürüko mina üken diat» (A.E.)

13. *Bi ahoak*

Hiru ahizpa Santa Graziko elizara kofesatzera zoazen. Bi zaharrenak serio, gaztena irri eta jauzi; batean gazte horrek diamantedun eraztun eder bat biltzen du. Besteek diote haiek lehenik ikusi dutela eta elkarrekin haserretzen

dira. Elizara iritxi eta erabakitzen dute apaizak ebatzi behar duela zein den eraztunaren jabea.

Zaharrena kofesatu ondoren apaizak galdetzen dio. «Zonbat aho dütüzü. Bi jaun erretora. Zoin da zaharrena? Beherekoak bizarra beitu eta gainekoak ez orano».

Erantzun pollita baina bigarrenak galdera berari erantzun zuen, bi aho zituela, bi ahoetan zaharrena goikoa zela haginak baitzituen eta bekoak ez. Azkenik gazteena eraztunduna agertu. Galdera berdina. Bi ahoetan zaharretan gainekoa zela, aspaldian ez baitzuen edoski, aldiz bekoak bezperan oraino edoski baitzuen. Horrela gorde zuen gaztenak eraztuna. (A.E.) (Igela)

14. *Begiak tapa itsutuko zarete*

Santa Grazin komunione denboran andre eder bati gona erori zitzaion. Gizoner apaizak: «Begi tapa! bestelan ütsütüko zide» eta zahar batek ondo-koari esan zion «Begi bat arriskattü nahi diat» (M.B.I.)

LAPUR ETA KONTRABANDISTAK

Ofizio horietan santa graztarrek, xahakotarrek fama daukate eta ligiarrek heurenak aisa kontatzen, beharbada gehienetan auzoen menturak barregarriak direlako. Santa graztarrak ez dira beste zuberotarrak baino okerrago horretan.

Badakit Ligin berdintsu direla. Ongi ezagutzen dut ligiarra zortzi urtekin arrebaren oinetako kordak lapurturik lagun bati saldu zizkiona, gero handitze-arekin lagun baten zaldia saldu, eta azkenik ere bereak zirela zortzi zaldi beretu. Santa Grazin ere horrelako «tristezia» bat edo beste gertatu da, herriko alkate batek bere burua erre zuen gau batez kandela bat pizturik gasolina lapurtzen jardun zuenean. Itzul gaitezen Humorera.

1. *Arima baino beharrago pertza*

Merkatu egun batez Ezpondaburu santagraztarra, Kurutxaga santagraztarren dendaren joan zen, pertz bat hartu eta hurrengo merkatuan ordainduko ziola esan. Hilabetez ez zuen Kurutxagak gure pertz mailegatzailea ikusi. Behin Atharratzeko karrikan tinkatu eta esan zion pertzaren saria zor ziola eta hark ez zuela inoiz ere haren dendan pertzik hartu. Kurutxagak Ezpondaburu Donapaleuko bake justiziari deitu zuen. Lekukorik ez zenez eta Ezpondaburuk zina zinaren gainean eginik, zuritu zuten lapurra. Handik ateratzean Kurutxagak: «Ezpondaburu, gal dük arima!», eta besteak erantzun: «Eta hik bertza!» (A.E. eta J.D.)

2. *Lapurtua ala bestea*

Ezpondabururen emaztea: «Ekarzü bertz bat, maitea»;

Ezpondaburuk: «Ebatsia ala bestea. (A.E. eta P.B.)

3. *Maisuaren guardasola*

Elizatik ateratzean errejenta, eskola maisua, konturatu zen norbaitek parasola eraman ziola. Apezari kexatu. Apezak hurrengo igandean: «nork ere ebatsi beiti errejentaren parasola, gibel ekar dezala» eta aste osoan apeztean hamabi guardasol agertu ziren. (A.E. P.B. eta J.P.)

4. *Hil kontrabandoa*

Behin Uztarrozen andre Santa Graziri fede handia zuen gizon bat hil omen zen. Santa Grazin ehortzea eskatu omen zuen. Hil kutxa karabineroen errespetuzko kurutzearen seinalearekin eta frantses mugazainen agurrak izan ondoren, Santa Graziko Hilerrietan lurperatu zen. Gauean sakrilejio batek hilibia ireki, hil kutxa atera eta barruan zeuden alkohol ontzi guztiak aizolbera eraman zituen. (A.E. eta R.M.A.)

5. *Asto zenaren abotsa*

Mugazainen Santa Graziko buruzagi berriak, herritarrak bildu zituen. Sekulako sermoia egin zien. Kontrabandoa Estatuari lapurtzea dela esanik. Santagraztarrei neurri eta zigor gogorrrak jarriko zizkiela. Jendea isilik eta zirkinik gabe, bat izan ezik, andre zahar bat negarrez. Jendeak kanporatu zirenean, andre zaharrari buruz joan zen esanaz.

«Ene hitzek zü bederen hunki zütie»

«Bai jauna bai, zure botzak atzo hil zaitan astoaren botza orhitarazi dita-züt eta kontrabandan erabilten nizün asto zena. Orai zer eginen dü, jauna?» (A.E. eta J.D.)

HERRITARREN TRUFAK

Arrazoi asko izan daitezke auzo herriaz truffatzeko, bekaizkeria (aberats/behartsu), antzinako historia izan gatazkak (bearnesak) edo auzoekin ezin uler-tuak (soldautzako borrokak euskaldunek gaskoienak ulertzen baitzituzten eta gaskoiek ez euskara ulertzen).

1. *Bordelesak krokodilo*

Bordeleko jendea, Toulousekoen alderantziz, ez da beti ongi ikusia Zuberoan. Bordelesez diogu krokodiloak direla «ahoa handi, aztaparra txipi eta büztana mehe düelako» (A.E.)

2. *Bearnes emazteen titiak*

Aurreko igarkizun berdintsua da. Zergatik bearnes amek titi txikia eta ti-bururu luzea duten. Erantzuna da bearnesek ahoa handi eta atzaparra txiki dutelako. (A.E.)

3. *Barkoixtar harroak*

Uste dut Amikuzen ere barkoixtarrez ipuinak kontatzen direla. Texastarren, marseillatarren, bilbotarren eta moskutarren moduan beti munduko gauzarik ederrenak, handienak dituztela diote. Allande Elixagaraik ixtoria hau eman zidan.

Barkoixtar artzaina mendira, beste herriko baten aldikatzea, txandakatzea dator. Sekulako zaldi handiarekin eta dio «zer zaldia! zer anhoa, zer janari bol-tza izugarria!» eta,

–bere buruaz mintzo– «güzien gainetik bizkarrean ekarri düala zaldi honek, gizona. Beste artzainak galdezka, «bena nun da gizona»? (A.E. eta J.D.)

4. *Barkoixtarren balentriak eta espantuak*

Bi barkoixtar beren artoez hitzegiten dute. «Aurten bezala eztiat sekülan holako artorik izan. Noiztenean gure gatüa artoren gora goiheneala igain duk, tzakürri ondotik eta arto zankoa eztük batere igitü».

Eta besteak:

«Nihaur igaran astean arto zanko batetara igain nük ene alhor zabalaren ikusteko eta pean, beheitian behia artoari hazkatzen hasi dük eta arto ondoa eztük batere igitü.» (A.E.)

5. *Etxebartarrak ero*

Herri batek ohitura zahar bat, pagan ohitura bat begiratu duenean auzokoek ez ulertuz hartaz trufatzen dira. Etxebartarrak eroak direla diote ligiarrek, ezen, omen, Ligiko bidean ataka hertsu bat egiten zuelako arkaitz bat bitxiki hautsi nahi izan zuten. Horretarako herriko arraultz guztiak bildu eta haiekin arkaitza hautsi nahi izan zuten. Orain saihetsean zafla hori bat duen arkaitz hori, bide bazterrean ikus daiteke (A.E.)

Juan Iñazio Hartsuagak ipuin berdin-berdina esan zidan Tolosa aldeko herrixka batengatik arrazoi berarengatik eroak direla kontatzen omen da. Auzo batzuek eta besteek ez dute ulertzen pagan ohitura zaharra dela, euri gehiegi denean eguzkiaren deitzeko arraultzak arroka baten kontra lehertzea. Gainera kasu berdinean eguzkia itzul dadin Euskal Herriko herri askotan Tolosan, Baionan eta Bizkaian tokika, kristauek Karmelitei edo Klarisei hamahiru arraultzeko dotzena eskaintzen diete.

6. Arstuarrek eta Etxebartarrak ero: gosea opil ukaldika kanporatzen

Arstueko jendea eroa dela kontatzen da. Alegia «Arstüarrak erho Petiri Santz (gosea) opil 'khaldüz lasterkatü nahi izan düe». Eta gaineratzen:

Arstüe hegillan
lohi franko karrikan
Petiri Santz ito izan zen
hanko herrian.

Etxebartarrez gauza bera kontatzen da bertsoz

Etxebarre zokotto
hanko jenteak erhotto
Petiri Santz lagüntü züen
ophil'kaldüz hürrüntto. (A.E.)

Opil ukaldien ekintza hori Erroman ezagutzen zen pagano ohitura zaharra da, alegia *lupercaliae* eta *parentaliae* jaietan, otsailean, opilak airera botatzea, hurrengo uzta ederra izan zedin. Orain Frantzian kanderailuz, «krepak» egiten dira eta airera botatzen, baina gehienak zartaginan berreskuratzen edo birzartagintzen badira, baina bat armario baten gainera botatzea lortu behar da.

7. Otxagabiarrek

Ipuinetan, astolasterretan, zuberotarra maltzur eta faltsu da eta nafartarra zintzo, harro eta xingle. Otxagabiarrez gutxienik bi ipuin kontatzen dira. Nafartarrekin gerrarik izan ez delako ez dira ipuin gaitzoak.

7.a Otxagabiarrek zeruraino otarrezko Babela eraikiz (Euskal Herriko beste lekutan kontatzen da).

Otxagabiarrek zerua ukitu behar zutela erabaki zuten eta hortarako Orhi mendi gaineraino igo, otarreak, zare beltzak metatu eta gizon bat goiheneraino joan. Otarre guziak metatu zituzten. Gizon bat igo eta hark esan:

«zare beltz bat falta zait zeruaren ukitzeko»

Eta behean zeudenak azpiko otarre bat kendu zioten emateko. Noski meta guztia erori eta behean Larraineraino iritxi, honela larraintarrek zare beltzak bildu eta egiten ikasi zuten. (A.E., J.P.)

7.b. Otxagabiar harroak

Otxagabiko jaun erretorak behin esan zien fededunei:

«Otxagin harro zizte, uste duzие argiak ziretela bainan eztakizие kebenko Muskilda ermitaren mendia puxkatu ondoan, zenbat zare beltzetan sartuko zuzukien?»

Denak isil. Zoko batean zegoen zuberotar txikiak bere abots mehearekin erantzun zion, «Zarea aski handi bada, bat aski düzü. (A.E.)

8. *Euskaldun nahasiak*

Joan den astean Jainkoa Euskal Herriko zarata, gatazka, iskanbilla, borrokaz tiroketez kezkatu, hiru pertsonak bildu ziren euskaldun nahasi horiei bisita egiteko.

Beste biet Jainko Aitari esan zioten lurrera jaits zedin jakitera zer gertatzen zen. Aitak ezetz, ezin «Aita gurea, zeruetan haizena» ezin zela jaitsi.

Semea jaits zedila. Hark ezetz, Aski! Iñolaz ere! Nahikoa! atxilotu, lotu, zaflatu, elorritz koroatu eta kurutzean lotua izan ondoren ez zela berriz jaitsi nahi.

Eta hi, Izpiritu Santua habil, hoa lurrera! Ni uso baten itxuran agertuko naizenean euskaldunek tirokatuko naute. Horregatik joan den astean Jainkoa ez zen Euskal Herrira jaitsi.

(A.E.)

Ondorioz

Kontakizunen gaiak

Gure ixtorio eta zirtoen, eta dritxoen pertsonaiak ez dira nolana hikoak. Ez dut aurkitu ipuinetan bestalde asto lasterretan ihakintzen diren medikuek, notarioek, abokatuak aipamenik. notin gehienak auzapezak (alkateak), apaizak, apaiz gelariak, ezkongaiak, gizon adardunak, herri auzoak, kanpotarrak, kontrabandistak, lapurrak eta umeak dira.

Pertsonaia bere ezohiko jokaera, ezagutzen ez duen jarrera, hizkuntzaren gatik barregarria da. Hitzek garrantzi handia dute batzuetan ausartzia salatzen dutelako, besteetan euskararen edota erdararen ez menderatzetik datozelako.

Herri kontakizun gehienetan bezala ez da moral garbi-garbirik, araztasunik, zintzotasunik. Kontalariak herritarren, bertakoen maltzurkeria, trebetasunak indarrari nagusitzen dela erakutsi nahi du eta honela entzulea zirikatatu. Lapurreta non ez den indarrez egiten ez da hain gaizki ikusia. Ez harrapatua izatea da jokoak. Ligiko harrapatugabeko ohoin trebe batek aspaldi duela esan zidan ETAkoak nekezago harrapatzen zituztenean, miresten zuela ETA, ez ideiegatik baina erdiesten zutelako ez harrapatuak izatea.

Xinplekeriaz, moldegaiztasunaz, baina zintzotasunaz ere barre egiten da. Zuberoan pikareska joera hori ez da bakarrik herri kontakizunetara mugatzen XX.mendearen lehen erdian, *Gure Herrian*, 1920 tik 1940.raino horrelako ixtorio bitxiak idatzi zituzten zuberotarrek. Jakingarria da ikustea idazle gehienak apaizak zirela, beraz honela, beharbada, beren katarsia egiten zutela. J. L. Davant horrelako ixtorioa batzuk bildu zituen eta *Ziberotar idazle zenuak*, liburuan eman berri ditu. Liburu horretan daude, ongi emanak, diputatuak trufatzeko Etxegoren apaizak *Musde Kukulleroren* ipuina, baita Constantin medikuak idatzi elaberri laburra *Don Juan*.

Zuberoatik kanpo Behe Nafarroan kontakizun giro berdina dago, hala nola Barbierrek 1930.an argitaratu zuen bilduma elebidunean, paradisuan ibili omen ziren hiru mutil maltzurren ixtoria. Gipuzkoan Juan San Martinek eta Jon Etxaidek argitaratu ixtorietan horrelako pikareska irakur genezake.

Ipuin horiek asto lasterretako eta xikitoetako irri baliabideekin erkatzen baditugu, elkarren arteko gai nagusia sexuarena da. Asto Lasterretan eta Ihauteri komedietan, aldiz, gorputzaren eta medikuntzaren inguruko bertso asko

daude. Xikitoetan berriz beherago jaisten gara, kaka, pixa, baita sodomia, felazioa eta bestialitatea gai izan daitezke. Beharbada azken kasu horretan berdetasun hori letorke nork entzuten eta nork egiten zituen ikusiz.

Zirtoak eta ipuinak, lehen behintzat, emakume gehienek belarriak mintzeko ez ziren ausartegiak, nahiz Frantzian, behintzat, gaur, pornografia gogorrean bizpahiru andre idazle gizonei nagusitu diren.

Antzina astolasterrak andreek entzuteko moduan ez ziren berdeegiak, gordinegiak nahiz sexua aipatzen zuten eta txisteak egiten andreek gorputzean zenbat zulo zuten, eta zuloz ez zela nahasi behar purga bat, klister bat ematean.

Xikitoak, berriz, andrerik ez zegoen bortuetan, artzainek elkarri botatzen zizkioten eta eufemismo eta sugerentzia txiki barik, hor zeinek gogorrago. Ohitura galdu bada ere xikitoak dakizkitenak badira.

Gaur aipatu dizkitzuedan esaundak Zuberoan, ez nornahiri noski, andre batek, gizon batek apaiz batek edo maisu batek berdin kontu litzake. Allandek berak esan zidan, aitak ez zizkiola sekulan kontatzen, baina amarekin eta amarekin asko ikasi zuela. Egia da gure izeba Maider zena oso alai zela eta aurrepegi hitsak zabaltzeko dohaina zeukala.

Ipuin horietan astolasterretan barregarri diren erortze, jauzte, beaztopatzez, muturjokarik ez da hanbat aipatzen. Biraoak eta hitz itsusiak, zubereraz « elhe Illarri » bezala ezagutuak ez ditut ixtoria horietan orainarte entzun. Sexu gauzetan ere barre gehiago eginarazten dute sugerentziek, deskribapen eta hitz larriek baino.

Gutxitan aurkitzen da bildu ditudan herri ipuinetan irribarrea eragiteko gorputzeko akatsen aipatzea. Itsuez, konkorez eta mainguez ipuin gutxi, beharbada, lehenago entzuleen artean gehiago zeudelako. Frantses ipuinetan, ordea, horrelakoak ugari dira. Ero ipuin bat edo beste kontatzen da. Susmoa dut, frantsesez horrelakoak eurrez direlako kanpoan ikasiak izan direla.

Herri eta herrixken artean zirtoak badira, herri aberatsak behartsuak trufatzen eta txiuroak aberatsaren harrokeriaz, baina bearnesen kasuan gogortasun zerbait sendi bada badator Zuberoak XII. mendean eta XV. mendean bearnes okupazio latzak ezagutu zituela, eta Zuberoak Santa Grazin, Barlanesen lurra galdu; geroztik ere berrehun urtez auzo horik euskal departamenduaren aurka ibili dira, Oloronek Mauleri zerbitzu publiko asko eta suprefetura hartu eta hau ez da txikiena: bearnes funtzionarioen inbasioa ezagutu du herriak.

Kontakizunen egitura

Ixtoria laburra izan daiteke eta igarkizuna: «Zergatik Arrantzale? Emazte eta haurren hazitzeko» eta batzuetan perpausak horrelako erretra edo atso-

titz itxura har lezakete «Buztana zulo batean daukazunean ez zaitez lokartu». Ipuin luze batzuetan suspentsearen bidez, eta errepikapenaren erritmoaz entzulea jakin minean jar daiteke. Horrelakoak dira Santa Graziko *Bi ahoena* eta *Apezari txerria lapurtu ziotenekoa*.

Dritxoak diogu zubereraz zirtoei eta askotan elharhizketaz baizik ez dira osatuak. Maidar Elixagarai gure izebak, amaren ahizpak, horrelakoak ohi zituena, nik automatikoki zerbait esaten nionean. Hona batzuk edatera edo jatera eskaintzen zigunean:

1. Ezerezik ez diagu

–Zer hartzen dük»

–Nik, deus ez»

–A! hortarik ez diagü. (M.E.)

2. Beharra behartu ondoren senditzen

Nik haren erantzuna ekiditeko, behin, aldaera erabili nuen

–Zer hartzen dük

–Ez dit deuseren beharrik

–Nik ere ez, bena hirekin hartüko diat. Usü behartü ondoan senditzen dük zer den beharra. (M.E.)

Ixtoriaren burua

Allanderi bildu eta neronek entzunen artean, gehienetan ixtoria buruan daude xehetasun batzuk eta gutxitan elkarhizketa batekin hasten da. Sarritan entzuleari zuzentzen zaio formula horiekin:

«Behin ikusi nüan, entzün nioan, kontaktü zitadean, Harrixuri zenak kontatzen züan. agitü zitadak»

Hasiera hasieratik osagai nagusiak ematen zaizkigu

Nortzu?

«Gizon bat, senargei bat, apez bat, zurgina, paristarsa, barkoixtarrak»

Batzuetan ixtoria minberegia ez denean, benetako izena ematen da, Aketxo, Ezpondaburu, Harrixuri, KürütXaga, Tzinkor.

Nun?

«Santa Grazin, Ligin, Larrainen, merkatüan, elizan, bidean, etxen»

Oraindik bizi diren batzuen errespetuz izenak eta lekuak ezabatu ditut.

Noiz?

«Behin, lehenago, aspaldi dik, igaran astean, noixtenean, halako batean»

Nola?

«Joan, ibili, jaitsi, sartu, egon, igain, igaran»

Ez da beti zentsuraz baina hitz zuzena etortzen ez denean euskara osoko baliapideez kontatzaileak dio:

«Badakik nun den zera? Zeraren zertzeko mekanika hori».

Ixtoriaren gorputza

Hor elkarrizketak sar daitezke, kantuetan bezala, deskribapenekin tarte-katuz. Deskribaketak barregarritasuna berotu lezake. Gorputzean atsotitzak, kantuak, otoiitzen parodiak eta bertsoak ager daitezke entzulearen kitzikatzeko eta ipuiaz oroi dadin.

Ixtoriaren azken burua edo buztana

Euskaraz azken burua esan genezake, baina latinezko *cauda* ez da gaizki batez ere *in cauda uenenum* dagoenean. Hor ixtoriaren gorputzean egin kopapiloa aska baitaiteke edota bakoitzaren irudimenaren gain utzi. Sasi moral batekin edo bertsolariek oi duten zirto batekin akaba daiteke.

Ipuinaren erritmoa. Erritmoaren ez hausteko kontatzaileak errepikapena erabil lezake eta horretarako galderen sistema, badago ipuin luzeetan. Zenbat aho dituzu, galdetzen baitu apaizak neska bakoitzari.

Kontakizunen iturriak

Erraz aurki daiteke zirto baten egilea eta euskaldun kutsua ikus. Ez da aisa erratea nondik datozen ipuinak. Asko kurrutzen dira eta Azkuek erakutsi zuen euskal ipuin batzuen eta alemanen arteko kideasuna, baina gure ipuin asko europarrak izango dira, batzuk gure herriak emanak, besteak mailegatuak.

Noizbehinka gertatzen da iturriaren ikustea. Pierra Bentaberriko lehengusuak Bocaccioren ipuin bat kontatu zidan, nola sukaldari batek erreberri zuen zikuña baten izterra maiteari eman zion. Nagusiak zerbitzatzean esan izter bat lapurtu ziola eta gizonak esan anka bakarreko zikuñak zeudela. Biharamun goizean elkarrekin joanda zikuña bat lotan zegoela anka baten gainean ikusi zuten. Begira zikuña zango bakarra, esan zion sukaldariak eta nagusiak esku zarta batekin bigarren pata pausarazi. Sukaldariak orduan «Jauna, atzo mahaian eskuekin zarta egin bazenu zikuñak bigarren zangoa aterako zuen.

Argi dago ere Allande Elixagarairen bilduman agertzen den «Jeannot Lapin» Juanito untxiaren» ipuin alegia frantsesa dela. Hor geltoki baten inguruan

bizi ziren ehun bat untxi hil zituen geltokizainak, Jeannot untxia izan ezik, eta hark protesta gisa zurrezko kurutze batean idatzi «Ene etxekoen orhitzean» Gero balastaren erditan, errailen erditan landatu nahi izan zuen. Lurra gogoregi atzaparrak higaturik, zulo txiki bat nekez egin zuen. Nekaduraz lokartuzen zuloa bere buztanarekin markatuz, baina tren bat etorri eta untxia lehertu zuen. Alegia horren morala da zubereraz «kasü emazie loak har büztana zilo batetan dükezienean.»

Uste dut frantses jatorria duela untxiez eta jendeez Domenika Hardoi zenak bazkari denboran kontatu zidana:

«Janezazü entsalada. Har ezazü begientako izigarri hun düzü»

Eta nik: «Segür zira begientako hun dela?»

«Bai bai soizü lllapieak jaten dizüe eta eztizüe lünetarik»

(Begira untxiek entsalada jaten dute eta ezdute inoiz betaurrekorik»)

Bestalde Parisen kaleko liliekin azterketan dabiltzan hiru seroren ipuina aipatu ez dudana, ziur frantsesa da.

Norbaitek lan egin nahi balu, iturriak bizirik daude. *Ziberoako Botza* Irratiak sekulako ixtoria erreserba dauka. Uste dut Bedaxagar kantari eta pastoral idazleak zuberotar pikareskaz bilduma bat idatziko duela. Nik behintzat hartara bultzatzen dut. Gure ipuin bat nola gizon batek herri askotan umeak egin zituen eta erretorak galdetu zionean nola egin zuen. Hark erantzun bizikletaz. Ipuin hau Roger Idiartek kontatzen duena eta Gipuzkoan Patxi Urriolagoiti Gaboriakoaz. Azkuek Baztanen bildu zituen dotrinako haurrak ezkontza eta heriotzaren nahastea, baita abadeari hika egiten ziona, baita Zuberoako beste asko Euskal Herrian non nahi aurki daitezke, baita Euskal Herritik kanpo ere, hala nola konkorrarren eta itsuarena: hik etxea bizkarrean daramak eta hik etxean leiho bat baizik ez duk.

Erran dezaket aski negar egiten dela mundu honetan, irribarre beharrezkoa dela. Kastellano ezkontanai espainolak bitxi aurkitzen zuela nola euskaldunak, gaztelarrak ez bezala, irribarre eta txisteari emanak ziren, esan zionean, Tomas Murua zarauztar eta eskultore adiskideak erantzun zion:

«irribarre egiten dugu, geuk euskaldunok, irauteko arazo serioak ditugulako».

Horregatik gaurko idazle hitsok badugu non ikas, zeren irribarrearekin ez bada, Euskal Herri, kulto, goibel, eta serio honetan, Literatura saririk irabazten irakurleari atsegin eman behar zaio, herriak atxiki duen bidea jarraituz.

Zuberoako arbolak, ihartu baino lehen, Euskal Herri guztiari eskaini dezaioa:

Eman ta zabalzazu
irriaren frutua.
Halabiz.